


Maide Garmendia Jauregi

A maila • 2 saria

Maide Garmendia naiz ni, Zaldibiakoa, eta 17 urte ditut, 11 urterekin hasi nintzen bertso eskolan eta oraindik ere jarraitzen dut. Hiru aldiz hartu dut parte bat-bateko eskolartekoan eta idatzizkoan ere ibili izan naiz, nire zaletasuna da bertsolaritza.



Doinua: Beste larreko iñularretan

NORK BERE ETXEKO ALDABA

1-

Euskal Herrian euskal hiztunak
ba omen ziren behin baten
ta iraun zuten jende arrotza
hona iritsi bitarten.
Hor hasi ziren euren eman
eta gurea ukatzen
besten etxera indarrez sartu
eta nagusi izaten,
ta guk orduan ezin asmatu
haien katetik askatzen,
hemen euskaraz hitz egin zedin
ez baitzitzaien gustatzen
bertako zena isildu zuten
eurek hitz egin zezaten

2-

Ezpata, tiro eta debeku
behin hola zirenak sartu
Euskal Herria zatitu zuten,
gure lurak okupatu,
espainola ta frantsesa eman
eta euskara ukatu
ordutik hona zenbat eraso
gaur ez direnak bukatu.
Nahiz ta oraindik jarraitzen duten
saiatu eta saiatu,
egin digute hainbeste zauri
eta hainbeste urratu,
baina herri bati bere izatea
ezin zaio debekatu.

3-

Gelara sartu ta buenos dias
esaten zun maisuak lehen,
ta gu euskaraz aritzen ginen
berak debekatu arren
erantzun estu ta mingarri bat
jarriaz beatzan ertzen,
masail gorritu ta etiketak
gero ezin zirenak ken;
baina pixkana oldartu eta
ausartu ginen dena den.
Azpitik altxa ta zutitzeko
izan degu nahiko kemen!
Aurrera zutik goaz gaur egun
nahiz tarteka egin erren.

4-

Nahiz ta sarritan egiten degun
euskararen aldarria,
oraindik ere egoera da
kezkatzekoa, larria.
Nahiz urte luzez egin deguna
den lan ikaragarria,
oraindik ere gure kaletan
finduz gero belarria,
sarri erdaraz entzun daiteke
hizketa, negar, irria.
Hainbeste pauso eta ahalegin
nago pentsatzen jarria
zergatik ez den euskaraz bizi
oraindik Euskal Herria.

5-

Ura mesedez eskatu dut ta
no te entiendo bat di-da.
Ogi erdi bat gutxi eginda
ta geratu zait begira.
Zazpi euskaldun ta erdaldun bat
guztiak erdaraz, tira...
Nahizta euskaraz lehenengo hitza,
gero erderaz segida.
Errex baztertzen dugu gurea,
pasa beste alderdira.
Nahizta badudan esperantza ta
irten nahi dudana argira,
herriko plazan haurrak jolasten
ta erderaz ari dira.

6-

Nahiz sinistuta daukagun oso
bai, gu euskaldunak gara!
garo sarritan egiten digu
enbarazu edo traba,
euskaldun gisa irteten gara
harrotasunez plazara,
bihotz erdian ikurrina bat
ta mingaina erdara.
Maite badugu Euskal Herria
maite badugu euskara,
igual tarteka jo behar luke
nork bere etxeko aldaba
euskaraz bizi nahi ez duena
hori euskaldun al da ba?